

BERMEO. Erretegira botateko batzen diran zaztarren kopurua % 3 bajatu zan igaz



VERONICA MUÑOZ

Gero eta bermeotar gehiagok erabiltzen dauz zaztarrak birziklatzeko edukiontzia.

Hondakinak birziklatzeko joerea gero eta handiagoa da bermeotarren artean

Uriko zaraten mapea egin ahal izateko, beste diru laguntza bat eskatuko dau Udalak

Iratxe Astuy

Bermeoko Ingurugiroko udal sailak igazko urtean urian batu ziran hondakin kopurua emon dau jakitera. Datuak ikusirik, esan leike birziklatzeko ohitura gero eta gehiago zabaltzen dagoala herriarren artean. Izan be, erretegiak diran hondakin kopurua %2, 64 jeitsi da, 2.000. urteko datuakaz konparatu ezker. Igaz, guztira, 5.757.740 kilo zaztar erre ziran Areneko erretegiak. Berreskuratu zan zaztarren kiloak, oste-

ra, 906.267 izan dira. «Fenomenu hau bolumen handiko hondakinak batzeko zerbitzua martxan ipini zanetik jazoten da», azaldu dau Nieves Lazkano Bermeoko Ingurugiro saileko udal teknikariak.

Beireari jagokonez, Bermeoko kontenedoreak gero eta ari-nago beteten dirala ikusi ahal izan da. 2001. urtean, 319.462 kilo beira batu eben Vidrala S. A enpresako langileek, hau da, aurreko urtean batu zana baino %1,19 kilo gehiago. Papera birziklatzerako orduan, herriko

ikastetxeetan eta udal bulegoetan batzen da hondakin gehiena. Hain zuzen be, hilerio 1.173 kilo paper batu zan, igaz, kontenedore honeetan. Kaleetatik bananduta dagozan ontzietan, barriz, 359.215 kilo paper berreskuratu zan joan dan urtean. Kopuru hau, 2.000 urtekoa baino apurra bat txikiagoa bada be, udal teknikariak ez dabe beharada txiki horri garrantzi handiegirik emon.

Arropak batzeko kanpaina

Erantzun ona dauka, baita, pilen batze zerbitzuak. Igaz, esate baterako, 2.938 pila kilo batu ziran Bermeon. Bolumen handiko hondakin kopuruak be, gora egin dau. Atal honetan, berrera-bili, berreskuratu eta berreskuratu ezin diran hondakinak bereizten dira. «Zerbitzu honi esker, mota honetako hondakin %75 a berreskuratzea lortu genduan 2001. urtean. Aurreko kanpainan, 12 kilo baino ez genduan errekupeau», zehaztu dau Lazkanok.

Beste alde batetik, kontuan hartzekoa da arropak batzeko kanpaina bi egiten dabilzala Bermeon. Bata, negu partean izaten da, eta bestea, udabarran. Joan dan urtean, 12.000

ARROPEA

Arropak birziklatzeko kanpaina bi egiten dira Bermeon; bata udabarrian, eta bestea negu partean

PAPERA

Urian dagozan ikastetxeetan eta udal bulegoko ontzietan 1.173 kilo paper batzea lortu zan igaz

kilo ehun hondakin batu ziran maiatzean eta zemendian egin ziran kanpainetan. «Aurton be, bardin egingo dogu. Kartelen bidez iragarriko dogu arropak batzeko zerbitzuaren hasiera. Herriko ikastetxeetan eta Ertzila antzokiko lokaletara eroan beharko dira», aurreratu dabe Bermeoko Udalean. Orain arte egin dan legez, Rezikleta enpre-searen bitartez kudeatuko da zerbitzu hori. Berreskuratu ahal diran beste materia batzuk, elektrotresnak, altzariak eta pilak dira.

GERNIKA-LUMO

Jentea polito ibili da martiko lehenengo azoka egunean

I. A.

Udabarri usaina igarten hasi da Gernika-Lumoko astelehenetako plazan. Izan be, jendea polito ibili zan atzo erosketak egiten. Aurreko astebeteetan moduan, azea eta kipula landarak saldu ziran gehien bat.

Azea 75 zentimoan emon zan, eta kipula landarearen zientu baxotxa 4 eurotan. Kipula gorria be, antzeko presioan saldu eben atzo. Indaba gorria hartu eben erosleek 6 euro kiloko ordaindu behar izan ebien, 4,80 baltza eta 5,40 zuria.

Patata kiloa 45 zentimoan saltzen egon ziran baserritarrak, eta piper si-kuen zientua 12 eurotan. Entsaladarako letxuga buruak 45 eta 60 zentimoen artean ibili ziran atzoko plazan, eta tomateak 3 eurotan handiena eta 1,20, osterak, txikiena.

Intxaur kiloa, sasoi honetan askorik saltzen ez bada be, 3 eurotan emoten dabilz azkenengo egunetan baserritarrak. Kalabazaren kiloa 75 eta 85 zentimoren artean dabil, eta azelga kiloa 75 zentimoan. Espinakak ez ziran askorik saldu, eta saldu ziranak 3, 60an kiloko. Atzoko merkatu plaza-tik etxerako landarak be dezentak eroan ebezan erosleek.

AGENDEA

BERMEO

Lehiaketea: M.B 2000 Zerbitzu Sozio Kulturala taldeak Gaztelekuko logotipoa aukeratzeko lehiaketaren deialdia zabaldu dau herrian. Lanak aurkezteko epea martiaren 31n amaituko da. Logotipoak Gaztelekuan bertan hartuko dira.

Ikastaroa: Bermeoko Behargintzak elikagaiak manipulatzeko karneta lortzeko edo barritzeko ikastaro plangintzeari hasiera emon deuto. Egun honeetan emoten dabilzan klaseak arrain kontserba fabriketako langileei zuzenduta dagoz. Halandabe, hurrengo hilabeteetan beste lan arloetan dabilzan beharginentzako ikastaro barriak antolatzeke asmoa dago.

Zinekluba: Datorren egunean, Cautivos del Mar Vicente Minellik zuzenduriko filma emongo dabe Nestor Basterretxea udal kultur aretoan.

Emonaldia gaueko 21:00etan hasiko da.

ZARATEA

Zaraten mapea osotu beharra

Etxe edo lantegietatik ataraten diran zaztarrez ganera, zaratak be ingurugiroko beste hondakin mota bat legez hartu behar dogu gaurregun. Herri baten, hainbat eta hainbat zarata emoten dira eguneko lehen orduetatik gaua egin arte. Zarata guzti horreek kontrolatzeko asmoagaz, Bermeoko Udalak herriko zaraten mapea egiten dabil. Lokalak insonorizatu eragin eta taberna edo bestelako lokaletan ipinten dan musikearen bolumena kontrolatzea izan dira, orain arte, emon diran lehenengoko pausoak.

Proiektu hori igaz ipini eben martxan, eta aurton, mapea osotzekotan dago Bermeoko Udalak. Proiektuari aurre egiteko, 3.786 euroko diru laguntza eukitea lortu dau.